

# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

251. zenbakia

Data 2008-12-31

40663 orria

---

## 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK

**1158/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 29 koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergako entitate taldeen erregimen berezian datuen berri emateko erabiliko den eredia onartzen duena.**

---

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

#### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*1.156/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 29koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergako entitate taldeen erregimen berezian datuen berri emateko erabiliko den eredia onartzen duena.*

Balio Erantsiaren gaineko Zergan likidazio aldi bakoitza amaitzean zergadunaren alde dagoen saldoaren itzulketa eskatzeko aukerari dagokionez sartutako aldaketak derrigortzen du, esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen erregistroa nahiz kuotak itzultzeko berriazko erregimena desagerrarazita, Balio Erantsiaren gaineko Zergako entitate taldearen erregimen bereziari dagokion datu komunikaziorako 039 eredia aldatzera, aipatu eredian itzulketa prozedura horren aldeko aukera sartze aldera, betiere hileko itzulketen erregistroan inskribatuta.

Gauzak horrela, hau,

#### XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 039 eredia onartzea.*

Bat. Onarturik geratzen da foru agindu honetan eranskin gisa ageri den 039 eredia, Balio Erantsiaren gaineko Zergako entitate taldeen erregimen berezian datuen berri emateko aurkeztu beharrekoa. Ereduek bi ale ditu:

- Administrazioaren alea, eta,
- Interesatuaren alea.

*Bi.* Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 163 quinquies.bi artikuluan xedatutakoarekin bat etorri entitate talde batean nagusi den entitateak aurkeztu behar du 039 eredia. Honetarako erabiliko da: Aipatutako Foru Dekretuaren IX. tituluko IX. kapituluaren ezarritako erregimen berezia aplikatzen dela jakinarazteko edo, bestela, 102/1992 Foru Dekretu horren 163 sexies.bost artikuluan ezarritako aukera egiten dela adierazteko. Azken kasu horretan, entitate nagusiak talde barruko eragiketetan hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzen dela ere jakinarazi dezake (102/1992 Foru Dekretuaren 103.bi.1. artikuluan aipatutakoa), talde barruko eragiketen sektore desberdinduari dagokionez. Hori guztia, abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 61.bis artikuluko 1. 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoari jarraituta. Era berean, 102/1992 Foru Dekretuaren 163.sexies.bost artikuluan araututa dagoen aukerari uko egiteko ere 039 eredia aurkeztu beharko da.

Halaber, entitate nagusiak eskatu dezake, 039 eredia aurkeztuta, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua 30. artikuluan araututako hileko itzulketen erregistroan izena emateko, betiere aipatu artikuluan jasotako itzulketa eskubidea erabiltze aldera.

*Hiru.* Entitate nagusiak 039 eredia aurkeztu behar du Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 61.bis artikulua 4. apartatua jasotako urteko komunikazioa egitean, bai eta erregimen berezia aplikatzen duten taldeko entitateetan edozein aldaketa gertatzen denean eta aipatu erregimenari uko egitean ere.

*2. artikulua. 039 eredia aurkezteko moduak eta tokia.*

Bat. 039 eredia paperean edo telematikoki aurkez daiteke, ondorengo bigarren apartatua jasota eragotzi gabe.

*Bi.* Telematikoki aurkeztea derrigorrezkoa izango dute likidazioaldi bakoitza amaitzean kuotak itzultzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboen erregistroan (BEZaren Erregelamenduak 30. artikulua jasotako) inskribatuta dauden entitate taldeko entitateek eta, era berean, erregistro horretan inskribatuta ez egon arren 2008ko azaroaren 18ko 1.002/08 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitortzen eta autolikidazioak sinadura elektronikoki balioztatua erabiliz telematikoki igortzea behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, 1. artikulua 1. apartatua jasotako kasuetan sartuta dauden entitateek.

*Hiru.* Papera erabiliz gero, Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko da 039 ereduko aitortpena.

*3. artikulua. 039 eredia aurkezteko epea.*

Oro har, 039 eredia haren bidez jakinarazten diren aukerak edo ukoek ondorioak izan behar dituzten urte naturala iritsi aurreko abenduan aurkeztu behar da, salbuespen hauekin:

a) Erregimen berezia aplikatzen duten taldeko entitateetan aldaketaren bat gertatzen bada urtean zehar, eredia aurkeztuko da aldaketa gertatu den likidazioaldiko autolikidazioa aurkezteko epearen barruan.

b) Enpresa edo lanbide jarduerari ekiten zaienean, edo hasten den jarduerari sektore desberdinduak denean entitate talde bateko enpresaburu edo profesionalak, 102/1992 Foru Dekretuaren 163.sexies.bost artikulua ezarritako aukerari heldutakoak, lehendik egiten ari zirenen aldean, talde barruko eragiketen sektore desberdinduari dagokionez 102/1992 Foru Dekretuaren 103.bi.1 artikuluko hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzea aukeratzen bada, jarduerari horiei dagozkien ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi diren zergaldiko aitortpen-likidazioa aurkezteko epearen barruan aurkeztu beharko du entitate nagusiak 039 eredia eta egindako aukeraren berri eman.

c) Erregimen berezia dagoeneko aplikatzen ari den taldeari abenduan edozein entitate mota atxikitzen bazaio, horren berri emateko 039 eredia erabili beharko da. Entitatea taldeari atxikitzen zaion egunetik ondorengo urtarrilaren 20ra bitartean aurkeztuko da.

d) Erregimen berezia dagoeneko aplikatzen ari den taldeari enpresa berriak atxikitzen bazaizkio, taldeko entitate nagusiak horren berri eman behar du, eta horretarako 039 eredia aurkeztuko du atxikipena gertatu den likidazioaldiko autolikidazioa aurkezteko epearen barruan.

e) Entitate taldearen erregimen berezia aplikatzea aukeratuko duen talde bateko entitate nagusiak, baldin eta talde horretan entitate guztiek erregistroan inskribatzea erabaki badute, erregimen berezi horren aldeko aukerarekin batera aurkeztu behar du eskaera, haren modu, toki eta epe berean; eskaerak ondorengo urte naturalaren hasieratik izango du ondorioa. Erregistroan inskribatzeko erabakiak ondoren hartzen badira, aldizkako autolikidazioen epean aurkeztu behar da eskaera; horrek autolikidazio horien likidazio aldia amaitu ondorengo egunean izango du ondorioa.

Erregistroan inskribatzeko eskaerak epez kanpo aurkezteak berarekin ekarriko du haiek ez onartzea eta artxibatzea, subjektu pasiboari komunikatzea ez den beste tramiterik gabe.

Erregistroan baja emateko eskaerak ondorioa izango duen urte naturala hasi aurreko abenduan aurkeztu behar dira.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena. Aitorpenak telematikoki sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz 1.002/2008 Foru Agindua indarrean jarri arte aurkeztera behartuta dauden subjektuak.*

Harik eta azaroaren 18ko 1.002/2008 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitorpenak eta autolikidazioak sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, ondorioak izan arte, Gipuzkoako Foru Aldundian 2007ko ekitaldiagatik aurkeztutako 190 erudian lan etekinen abonua direla-eta aitortuen 25 erregistro edo gehiago zerrendatu dituzten zergapekoek bide telematikoz eta sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz aurkeztu beharko dute 039 eredia.

*Bigarrena. Hileko itzulketen erregistroan izena ematea.*

Bakarrik 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioa izan behar duten hileko itzulketen erregistroko inskripzioetarako, 2009ko urtarrilaren 30ean amaituko da 1992ko abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 30.6 artikulua lehena paragrafoan jasotzen duen inskripzio eskaerako epe orokorra.

*Hirugarrena. Entitate taldeko erregimen bereziari uko egitea.*

2009ko urtarrilaren 31ra bitartean uko egin diezaiokete entitate taldeko erregimen bereziari 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 163. sexies artikuluan jarritako baldintzen arabera entitate taldeko erregimen berezia aukeratu duten entitateek; ondorio horietarako, ez da aplikaziozkoa izango aipatu artikuluan jarritako hiru urteko epea.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, zehazki, 2007ko abenduaren 19ko 1.311/07 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren entitate taldeen araubide berezian datuen berri ematekoa 039 eredia onartzen duena.

#### AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko abenduaren 29a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Departamentuko foru diputatua.